

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZIZURKILGO UDALA

*Iragarkia*

2020ko abenduaren 11ko Alkate Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu zen:

2020ko azaroaren 5ean, 261/2020 Alkate Dekretuaren bidez, Udal honetako «Era askotako zerbitzuen ofiziala eta lurperatzailea»ren lanpostua oposizio-lehiaketa librearen bidez betetzeko deialdia egitea onartu zen. Dekretu horretan deialdi horren oinarriak ere onartu ziren.

2020ko azaroaren 17an, aipatutako lanpostua betetzeko deialdia argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 220. zenbakian.

2012ko abenduaren 1ean, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendariaren idatzi bat jaso zen Udal honetan, deialdiaren oinarrien edukia aztertuta, zuzendu beharreko zenbait lege-manu urratzen dituzten zenbait akats daudela jakinarazteko.

Horregatik guztiagatik, eta ordenamendu juridikoak ematen dizkidan eskumenak ikusita, bereziki Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1g) artikulua, honako honen bidez

EBAZTEN DUT

*Lehenengoa.* Udal honetako «Era askotako zerbitzuen ofiziala eta lurperatzailea»ren lanpostua oposizio-lehiaketa librearen bidez betetzeko aipatutako deialdia baliogabetzea.

*Bigarrena.* Udaleko zerbitzu teknikoek deialdirako oinarri berriak idatz ditzaten agintzea, Dekretu honen azalpen-zatian aipatutako akatsak zuzentzeko.

*Hirugarrena.* Oinarri berri horiek idatzi ondoren, onartu egingo dira, eta lanpostu hori betetzeko beste deialdi bat argitaratu da.

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Zizurkil, 2020ko abenduaren 14a.—Iker Urruzola Aizpurua, (6690)

AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL

*Anuncio*

Mediante Decreto de Alcaldía de 11 de diciembre de 2020, se tomó el siguiente acuerdo:

El 5 de noviembre de 2020 por Decreto de Alcaldía n.º 261/2020 se aprobó realizar la convocatoria para la provisión del puesto de trabajo de «Oficial de servicios múltiples y enterrador» de este Ayuntamiento, mediante concurso-oposición libre. En dicho Decreto se aprobaron también las bases de dicha convocatoria.

Con fecha 17 de noviembre de 2020 se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 220 la convocatoria para la provisión del mencionado puesto de trabajo.

Con fecha 1 de diciembre de 2012 se recibió en este Ayuntamiento un escrito de la Directora de Relaciones con las administraciones locales y registros administrativos del Gobierno Vasco, comunicando que analizado el contenido de las bases de la convocatoria, se constatan una serie de defectos que contravienen varios preceptos legales que habría que subsanar.

Por todo ello, y vistas las atribuciones que el ordenamiento jurídico me confiere, en especial el artículo 21.1g) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las bases de régimen local, por la presente

RESUELVO

*Primero.* Anular la mencionada convocatoria para la provisión del puesto de trabajo de «Oficial de servicios múltiples y enterrador» de este Ayuntamiento, mediante concurso-oposición libre.

*Segundo.* Ordenar que los servicios técnicos municipales redacten unas nuevas bases para la convocatoria, que subsanen los defectos a los que se ha hecho referencia en la parte expositiva de este Decreto.

*Tercero.* Una vez redactadas estas nuevas bases, se procederá a la aprobación de las mismas y a la publicación de una nueva convocatoria para cubrir dicho puesto de trabajo.

Lo que se hace público para su general conocimiento.

Zizurkil, a 14 de diciembre de 2020.—El alcalde, Iker Urruzola Aizpurua. (6690)